

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Alkateordeak izendatzea eta eskuordetze erabakiak

Nik, alkateak, 2019ko ekainaren 20ko ebazpenaren bidez, eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 46. artikuluan aitortzen dizkidan esku-menak erabiliz, honako izendapen hauek egin ditut:

Lehenengoa. Zaola Gorostizaga Ugarte izendatzea lehen alkateorde, eta Rufino Santocildes Orue bigarren alkateorde.

Bigarrena. Euskara, Kultura, Hezkuntza eta Kirol arloak Iñigo López de Santiago zinegotziari eskuordetzea. Eskuordetze horrek dagokion zerbitzua zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena dakar berekin, hirugarrenei eragiten dieten administrazio ekintzen bidez ebazteko ahalmena izan ezik.

Hirugarrena. Gizarte Ongizate, Partaidetza eta Berdintasun arloak Zaloa Gorostizaga Ugarte zinegotziari eskuordetzea. Eskuordetze horrek dagokion zerbitzua zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena dakar berekin, hirugarrenei eragiten dieten administrazio ekintzen bidez ebazteko ahalmena izan ezik.

Izarra, 2019ko uztailaren 22a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA